




Defendatzaileen — Buletina — Boletín Defensoras

Septiembre 2023

Aurkibidea:

1. Aurkezpena
2. Prestakuntza prozesuak emakume anitzekin EAEn
3. Ikasgeletan hartutako konpromisoa
4. Arrazismoaren aurkako ahots feministak lurraldearen eta bizitzaren defentsan
5. 2023ko maiatzeko biraren argazki erreportajea
6. Komunikatzeko beste modu batzuk
7. “Ongi Bizitzearen defentsa Donostian” aldarrikapena
8. Hurrengo jardueren agenda
9. Arte aldarrikatzailea

1. Aurkezpena

Irakurle maitea,

Lumaltik Herriak - etik bultzatzen ari garen #Oihartzun Talka Kanpainaren azken buletina aurkezten dizugu. Beti bezala, ilusio handiz eta sistema Kapitalista, arrazista eta heteropatriakalaren aurkako borrokak kolektibizatzeke asmoarekin, Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko lurraldeak hurbilduz. Horretarako, elkarriketarako, elkartrukeko eta sentsibilizaziorak guneak sortzea funtsezkoa dela uste dugu. Espazio horietan, gure gorputz lurra defendatzen duten eta Erdialdeko Amerikako hainbat lurraldetatik datozen emakumeek beren borrokak eta esperientziak partekatzen dituzte, Euskal Herriaren eta bere prozesuen arteko elkartasuna sustatuz, herrien eta emakumeen autonomia defendatzearen alde.

#Oihartzun Talka 2021eko udaberrian kaleratu zen, edialdeko amerikako ekumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotsa altxatzeko helburu tinkoarekin komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarri. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hau da, saleketa - kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa - ekintzak bideratzeko.

Buletin honetan, 2023ko martxoan, apirilean, maiatzetan eta ekainean Euskal Herriko hainbat emakume taldeekin eta Erdialdeko Amerikako defendatzaile eta komunikatzaile komunitarioekin batera egindako hainbat espazio eta jardueratan bizi izan dugun ikasketa prozesua partekatu nahi dugu. Komunikatzaile komunitarioek eta alternatibek, lurraldearen defendatzaileek, migratutako, erbesteratutako eta arrazializatutako aktibistek (ez soilik Erdialdeko Amerikan bizi direnak) Euskal Herrian bizi duten egoeraren berri eman nahi dugu

2. Prestakuntza prozesuak emakume anitzekin EAEEn




Prestakuntza prozesuak emakume anitzekin EAEn

Martxotik apirilera bitartean, bi prestakuntza prozesu Aurrera eraman genituen Euskal herriko hainbat udalerritan, gure ongizate pertsonal eta kolektiborako baliabideak eskaintzeko eta gure ohiturak “Ongi Bizitze”-aren eredu horri bideratzeko.

“Defendatzaile eta aktibisten eskola”

Lehenengo prestakuntza prozesua Donostiako Emakumeen Etxean burutu zen, martxoaren 16, 23 eta 30ean, hain zuzen. Eskola horretan, Herri Hezkuntza Feministaren metodologiak erabili ziren tokiko eta Erdialdeko Amerikako agendako funtsezko gaiak jorratzeko.

Dinamizazioa Euskal Herrian erbesteratutako emakume migratu eta defendatzaileen kolektiboen bidez egin zen. Gure praktikak besteekiko auzitan jartzen eta birpentsatzen saiatzen gara, kultura artearen eta arrazismoaren aurkako ikuspegitik abiatuta, geure elkarrekiko ahizpatasuna hobeto ezagutzeko eta aldarrikatzeko.



1. Modulua: **Artea eta sanazioa lurraldea defendatzeko tresna deskolonizatzaile gisa.** *Dinamizatzailea: Lucía Ixchiú (Festival Solidarios)*


Artea funtsezkoa da borrokarako. Mina bizitzaren parte bat da, sufrimendua aukera bat aldiz. Arteak era kolektiboan sendatzen eta eraikitzen laguntzen du, askatzeko eta emantzipatzeko tresna bat da, alegia. Tresna iraultzaileak erabiliz espazio artistikoak sortzeko aukera izateak eta ekimena hartzeak modu harmonikoagoan bizitzen laguntzen digute.

2. Modulua: **Interseksionalitatea, askotariko feminismoak eta sare eta aliantza inklusiboak.** *Dinamizatzailea: Soraya Ronquillo eta Katia Reimberg, Bidez Bide elkartekoak.*

Kolonialismoa botere historikoaren eredu bat da eta, zoritarrez, gure harremanak izateko moduan mantentzen da. Munduko arraza eta etnia sailkapen bat ezartzen du, zurtasuna guztien gainetik jartzen duena. Migrazio prozesuek zaurgarritasun handiagoko lekuetan jartzen dituzte emakumeak, gehienak arrazionalizatuak dira gehien bat: defentsa gabezia, arrazakeria, prekaritatea eta indarkeria. Horregatik, afektu eta zainketa sareak sortzea funtsezkoa da.

3. Modulua: **Ongi Bizitzea, gorputzak eta aktibismo aniztasuna.** *Dinamizatzailea: Sara Alvarez Medrano, K`qla Emakumeen Elkarteko terapeuta soziala.*

Ondo bizitzeko mundua eraldatu nahi dugu, ez lehiaketa dinamiketan eta erritmo frenetikoetan murgiltzeko. Horrek, aukera eskaintzen digu Euskal Herriko feminismoan gertatzen diren zenbait aktibismo jarrera zalantzan jartzeko. Sanazioa Abya Yalako herri indigenen apustua da, eta izakien eta naturaren artean modu harmonikoan bizitzeko aukera planteatzen du, eredu indibidualistetatik askatuz eta bizitza komunitarioa proposatuz.





“Lurraldearen defentsa feministarako eskola ibiltaria”

2023ko otsailetik ekainera, 12 topagune antolatu genituen talde feminista eta Anti arrazistekin EAEko hiru probintzietan. Talde parte hartzaileei espazio bat eskaini genien, feminismoetatik lurraldea defendatzeko lantzen ari diren alternatibei buruz ikasteko eta sakontzeko, bai teoriarik eta bai praktikan. Era berean, komunikazio tresna alternatiboak landu genituen.

- ➡ “Ongi bizitze” ereduaren alternatibak identifikatu genituen, arte eta sanaziotik landuz, lurraldea defendatzeko deskolonizazio tresna gisa;
- ➡ Komunikazio feministaren esperientzia artistikoen berri eman zen, praktika onak identifikatuz eta taldeen komunikazio gaitasunak indartuz.
- ➡ Adierazpen artistikorako lekua izan zen, bi horma irudietan lan egin genuen, eta, hala, odol-emate emozionaleko prozesu bat sustatu zen.
- ➡ Feminismo desberdinen bidezko beste borroka batzuetara hurbildu ginen;



- ➡ Emakume migratuek eta arrazistek aurrez aurre duten arrazismo soziala eta instituzionala zalantzan jarri genuen;
- ➡ Benetako ahizpatasunerako sormenaren zainketari eta garrantziari buruz hausnartu genuen.

Modulu hauen hezitzaile eta dinamizatzaileak Emilia Larrondo, Sara Álvarez Medrano, Lucía Ixchíu Hernández, Rebeca Nguissani, Janire Orduna eta Bea Aparicio (Femgarabat) izan ziren.



3. Ikasgeletan hartutako konpromisoa



Lumaltik Herriak DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Unibertsitate mailako ikasleekin defendatzaileen eta aktibisten arteko elkarrizketa bermatzearen alde egiten du.

Erdialdeko Amerikako defendatzaile eta komunikatzaileen bisitan, bai eta arrazializatutako eta erbesteratutako aktibistekin batera, zenbait topaketa eta prestakuntzak burutu ditugu Bergarako eta Eskurtzeko (Bilbo) BHletan. Eta baita Gasteizko Egibide Molinuevo ikastetxeko Gizarte Integrazioko eta Ingurumen Hezkuntzako Lanbide Heziketako moduluarekin eta Donostiako Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntza eta Gizarte Laneko graduarekin ere.

Gogoetak Herri Indigenen autonomiarekin, Euskal Herriko erauzketa eta kaleratzearen aurrean lurraldea defendatzearekin eta arrazismoaren aurkako mugimenduaren aldarrikapenekin lotuta egon ziren.



IES Bergara



IES Eskurtze, Bilbao



Proceso Colegio Egibide Gasteiz



Universidad de Deusto, Donostia

4. Arrazismoaren aur- kako ahots feministak lurraldearen eta bizitza- ren defentsan





*Marta Rivas, Giza Eskubideen defendatzailea
eta El Salvadorreko komunikatzailea.*

El Salvadorreko, Guatemalako eta Mexikoko lau defendatzaile “Arrazismoaren aurkako ahots feministak lurraldearen eta bizitzaren defentsan” biran parte hartu zuten. Bira hori maiatzaren 22tik 27ra egin zen Euskadin, Lumaltik Herriak lankidetzak erakundearen laguntzarekin. Erakunde horrek mundu hobeak eraikitzeko laguntza eskaintzen die erakunde indigenei eta gure eskualdeko emakumeei.

Nazioarteko bira horretan, Erdialdeko Amerikako eskualdean gauzatzen diren hainbat borroka prozesu partekatu ziren, batez ere gure jatorriko herrialdeetan, non komunikazio alternatiboa eta komunitarioa egiten dutenek gero eta desberdintasun, errepresio eta jazarpen handiagoko testuinguruak bizi dituzten. Horrekin batera, lurraldean estraktibismoa eta sistema kapitalistak, patriarkalak eta arrazistak sortutako indarkeriaren aurka borrokan egiten dutenak ere.

Cabañas departamenduko eta Garapen Ekonomiko eta Sozialeko Elkarteak (ADES Santa Marta) borroka komunitarioen ordezkari gisa, El Salvadorren giza eskubideen arloan bizi den errealitateaz, lurraldeen desjabetze eta ustiapenez, emakumeen eta herrien gorputzez, meatzaritza metalikoa berriro aktibatzeak berehalako mehatxuaz, kazetaritza jarduerak kritikoaren eta independentearen aurkako babesaz jabetu ginen.

Euskal Autonomia Erkidegoan burututako elkarrizketen bidez, eskualde osora zabaltzen ari den gure jatorrizko errealitateko gertaerak partekatu ahal izan ziren. Aldi berean, irratik komunitarioek testuinguru horietan duten rola garrantzia nabarmendu ahal izan zen, bai eta

agroekologia indartzea ere, alternatibak kontra hegemonikoen gisa, eta emakumeek antolaketan, komunikazioan eta gizarte eraldaketan duten funtsezko eginkizuna aldarrikatu.

Hainbat pertsona talderen aurrean, Santa Martaren eta ADES elkartearen bost lider komunitario eta ur-defendatzaileen kriminalizazioa ere salatu zen, bai eta El Salvadorreko sistema judizialak bere eskubideen urraketa ugari egin izana ere, estatu aparatuen osagarri gisa.

Jun Na'oj Komunikatzaile Indigenen Sarea, Guatemalako Irrati Eskolen Federazioa (FGER) eta Guatemalako La Cuerda Feminista, Txiapaseko Fray Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Etxea, Honduraseko Mugimendu Feminista, Euskal Herriko Mugimendu Antiarrazista, Ecuador Etxea (Euskal Herria), Hordago, El Salto, Calala eta Pikara Magazineko kideak parte hartu zuten.

Bira honek errealitateak, borrokak eta proposamenak elkartzeko espazio garrantzitsua izan zen, eta hitz hori funtsezkoa da bizitza eta lurraldea talde gisa defendatzeko.

5. 2023ko maiatzeko biraren argazki erreportajea







6. Komunikatzeko beste modu batzuk



Komunikatzeko beste modu batzuk

2023ko maiatzaren 26an, Gasteizko Emakumeen Etxean, Komunikazio Feminista eta Antirraziistari buruzko jardunaldiak egin genituen.

Erdialdeko Amerikatik, Angela Cuc, Jun Na'oj Komunikatzaile Indigenen Sarea eta Guatemalako Irrati Eskolen Federazioa (FGER), Guatemalako La Cuerda Feminista erakundetik Maya Alvarado eta Rosy Rodríguez Txiapaseko (Mexiko) Fray Bartolomé de las Casas Giza Eskubide zentroko langileak izan ziren. Horrez gain, Euskal Herriko mugimendu feminista eta arrazismoaren aurkako mugimenduetako kideak eta kazetariak ere parte hartu zuten: Rebeca Nguissani, Evelyn Morales Ecuador Etxetik, Miriam Najibi Goñi Hordago El Salto egunkaritik, Suyen Martínez Calala taldetik eta María Ángeles Fernández Pikara Magazine aldezkariako idazlea.

Hona hemen jardunaldiko zenbait gogoeta:

Suyen Martínez: “Kolektibitateak energia ematen digu, indarrez, amorruez eta alaitasunez betetzen gaitu, patriarkatuaren, arrazismoaren eta kapitalismoaren aurka borrokatzen jarraitzeko”. Erakundeen barnean, dekolonialtasunaren eta botere harremanen inguruko hausnarketa sakon bat egitea guztiz beharrezkoa. Gure taldearen baitan antirrazismoa aukera bat ez zela erabaki genuen.

Rebeca Nguissani: Komunikabide nagusiak ez dira antirrazistak. Minaren narratiba erabiltzen dute: Hegoalde globaleko herriei “inmigrazionalismotik” ematen zaie protagonismoa soilik. Migrazioa kontakizun sentsazionalistetara soilik murrizten da, eta hortik eraikitzen du gizarteak bere imajinarioa: zerbait atzerritarra, kanpokoa, inpersonala eta apartekoa. Komunikabideetan espazio puntualetan agertzen gara bakarrik, ez egunerokoan, komunitatekoa ez balitz bezala. Narratiba bakarra, zuria, hetero eta arrazistak diskurtsoa pobretu eta gorrotozko diskurtsoa sustatzen du. Bestelakotasunean eta bazterketan oinarritutako diskurtsoa da.

Ángela Cuc: Hitza da defendatu beharreko lehen lurraldea, errealitateak aldatzera bultzatzen baikaitu. Beste komunikazio bat posible dela uste dugu: ez hitz egin gertakari txarrez bakarrik edota kritika etengabeaz, baizik eta alternatibez ere, proposamenetik abiatuta. Ez dugu behar gure hitza inork abalatzetik. Gure baitan barneratuta dugun arrazakeria indartzen duten jarrera paternalista horiek ere aldatu nahi ditugu. “Indiarrak bezala zapaldu bagintuzten, indiarrak bezala jaiki egingo gara”.





Rosy Rodríguez: Giza Eskubideen defentsa ezin izango litzateke eman biziraun duten lagunen hitzik gabe, haien bizipenetatik. Giza eskubideen defentsa kolektiboa izan behar du, eta erasoetatik bizirik atera direnetatik bertatik. Komunikazioaren alde egiten dugu, bizirik dirautenen hitzetik abiatuta. Indar-unitatetik salatu eta emaita handiak lor ditzazkegu.

Maria Ángeles Fernández: Beste lurraldeetatik sortutako alternatibak ezagutzea oso beharrezkoa da. Komunikazioa herrien oinarritzko eskubidea da eta, aldi berean, botere tresna ere bada. Komunikazio hegemonikoak bizitza eta iritzi asko uzten ditu kanpoan, eta publikoari ez diote informazio osoa ematen.

Maya Alvarado: La Cuerda Feminista Guatemalako emakumeen egoera salatzeko tresna politiko gisa sortu zen. Inprimatutako aldizkari gisa jaio zen hasiera batean. La Cuerda-k hainbat etapa izan ditu. Gaur egun, gehienak mestizoak eta hiriburukoak izanda, osatze komunitario prozesuak berrindartzen ari dira berriro ere, ikuspegi feministatik abiatuz noski. Aliantzak berriak egiten ari dira komunikazio komunitarioa egiten duten komunikatzaile indigenekin, haiengandik ikasi eta partekatzeko.

Marta Rivas: Komunikazioa eguneroko bizitzan egiten dugun guztia da, norbanakoaren eta taldearen ikuspegitik. Gure herrialdean herri indigenak hustu eta suntsitu egin ziren. Borroka komunitarioen ondoren, hala nola Santa Martarena, berriki adierazpen eta prentsa askatasuna urratu da. Etengabeko jazarpena pairatzen ari gara. Askotan itxaropenetik edo gure dolutik egiten dugu lan. “Nik ez dut komunitatearen ahotsa ordezkatzeko, komunitateek mikrofona har dezaten egiten dut lan”


Miriam Najibi Goñi, Hordago - El Salto. Prekarietate handia dago lanbidean. Alde handiak daude ingurune hegemoniko eta alternatibo batean lan egitearen artean. Komunikabide ez hegemonikoek gizarte mugimenduei gertutik informazioa emateko eta ikerketa kazetaritza egiteko erantzukizuna dugu. Ibex35-eko enpresek ez finantzatzeko ondorioak ditu; horregatik egin da autogestioaren aldeko apustua.

Evelyn Morales, Ecuador Etxea: Mugimendu feministaren eta beste borroka batzuen aliatutzat hartzen dira. Elkarbizitza elkarte gisa hasi ziren arren, pixkanaka egin nahi dutenera egokitzen joan ziren: “komunikazioa eta bidegabekeriak ikusaraztea”. Hala, komunikabide feminista bihurtu da, emakume migratuen, gizarte mugimenduen eta mugimendu feministaren arteko borrokarekin batera. Autodefentsan eta arte feministan ere prestakuntza ematen dute.





7. “Ongi Bizitzearen defentsa Donostian” aldarrikapena





DONOSTIA, 2023KO IRAILA

Emakume eta gorputz disidenteak gure lurraldeetan bizi ditugun indarkerien aurrean erresistentzian gaude, ez bakarrik Erdialdeko Amerikan, baita Euskal Herrian ere. Egunero bizi ditugun etengabeko eraso arrazista, sexistei eta LGBTIfobikoei aurre egiten ari gara.

Injustizia-harremanak betikotzen dira “Iparralde” deritzonaren lurraldeak “Hegoalde Global” aldera etengabe arakatzen eta ustiatzen direlako.

Bien bitartean, “pobrezia” migrazioa eragiten duen faktore nagusia dela adierazten eta justifikatzen jarraitzen da, eta saihestu egiten da enpresa transnazionalak biztanleak beren lurraldeetatik indarrez kanporatzean eragindako eskubideen etengabeko urraketa.

Suntsitze klimatikoaren ondorioz premiazkoa den testuinguru batean, eta gorroto diskurtsoen aurrean, funtsezkoa da narrazio hegemoniko eta kolonialekin eztabaidatzea eta hauen haustura bideratzea, lurraldeen eta pertsonen arteko bestelako harremanekin amaitzeko.

2023. urtean, Donostiako hainbat topagunetan parte hartu dugu, eta gure gorputzak zeharkatzen dituzten hainbat indarkeria antzeman ditugu. Gozamina, desira, plazera eta gizakien arteko harmonian bizitzeko eskubidea ere aldarrikatu dugu. Topaguneak egin ditugu, eta horietan herri hezkuntza feminista lehenetsi da beste jakintza batzuen gainetik, hala nola, artea eta sendatzea, intersektionaltasuna, antirrazismoa eta Ongi Bizitzea, askotariko gorputzak eta aktibismoak berretsiz.

Ahots kolektiboa eta gure sentipenak biltzen dituen adierazpen honen bidez, agerian utzi nahi dugu topaguneak horizontalki ehuntzen jarraitu beharra, espazio feministak, non denok sentituko garen kolektibitate baten parte, non gure jakintzak baloratuko diren, lehenetsia emango zaie konfiantzako eta horizontaltasuneko espazioei, non gure ezberdintasunak eta pribilegioak aintzatetsiko diren, eta non bizitza eredu indibidualistetatik askatuko garen eta bizitzaren aldeko apustua egingo dugu.

Behean sinatzen ditugun erakundeek eta mugimenduek, defentsa erakundeek, emakumeek eta tokiko aktibistek, migratuek eta erbesteratuek, edozein lurraldetan eta edozein gorputzetan bizitza osasuntsua, segurua eta indarkeriarik gabea izateko nahia aldarrikatu nahi dugu.

Mundua eraldatzeko bat egin nahi dugu, harmonian bizitzeko eta Ongi Bizitzearen borroka bateratuak egiteko aukera izateko.

Sinatzaileak: Lumaltik Herriak, Politiki Elkarteak, Festivals Solidarios, Bidez Bide, La Cuerda Feminista (Guatemala), ADES, Santa Marta (El Salvador), FGER, Guatemalako Irrati Eskoletako Federazioa, Jun Na’oj sarea, Paz y Solidaridad Euskadi, Fray Bartolomé de las Casas Giz Eskubide Zentroa (Txiapas), Lucía Ixchiú Hernández, Sara Álvarez Medrano, Micaela Carbajal.

.



8. Hurrengo jardueren agenda





Hurrengo jardueren agenda:

Iraila:

Irailaren 27an, 10:00etatik 12:00etara:

“Gorputz desberdinak, sentipen kolektiboak” tailerra. “Ongi Bizitzerako baliabide feministak” Donostiako Emakumeen Etxean.

Irailaren 27an, 18:00etatik 20:00etara: “Ongi Bizitze bizi-ereduaren gogoetak” Teila Fabrikan, Donostian.

Urria:

Urriaren 26an, 18:00etatik 21:00etara: “Setia mediatikoa apurtu: Komunikazio Alternatibo Esperientziak” jardunaldia Hika Ateneoan (Bilbo).

Urriak 27, 10:00etatik 20:30era: “Artea Ongi Bizitzearen alde” jaialdia Eskoriatzan

Informazio gehiago: hezkuntza@lumaltik.org, <http://www.defensoras.org/agenda/> eta gure sare sozialetan.



9. Arte aldarrikatzailea



Fernanda Betancourt, “Betan”

Fernanda Betancourt, “Betan” ezizenez ezaguna, Tegucigalpatik (Honduras) datorren artista plastikoa, ilustratzailea eta muralista da. 2014az geroztik, Betanek ibilbide profesionala sortu du artista gisa espazio publikoetan arituz. 2013an Arte Eder ikasketak amaitu zituen Eskola Nazionalean.

Bere ikuspegi plastikoa feminitatearen irudikapena nabarmendu zen bere estetikan, irudimenezko hori mihise eta hormetara transmititzeko aukera emanez. Betan 2023ko urriaren 23tik 28ra antolatutako “Defensoras” biran izango da.



"Las Fundadoras", **Fernanda Betancourthe** 2022an estilo ilustratibo errealistakoan sortutako obra da. Proposamen hau emakumeek eraikitzen dituzten borroka eta erresistentzien ingurukoa da. 250 metro karratu inguruko formatu angeluzuzenean, hiru angeluko konposizioa du, eta emakumeen talde sozialei belaunaldien arteko ordezkoei egiten die erreferentzia.

Akrilikoaren teknikarekin egin dago, kolore pastel biziko gama erabili du, kultura aniztasunaren garrantzia hori adierazten dutenak. Ehundurak erdiko irudiko alkandora batean antzeman daitezke, ekiloreetan hain zuzen, erresilientzia sinbolo gisa.

Mendiek eta laboreek gure herrialdeko komunitatea eta lurraldeei egiten die erreferentzia. Obra honetan, gure etnien zenbait elementu kultural ikus daitezke, gure antzinako herriek duten eta oraindik ere dituzten indarraren eta erresistentziaren sinboloak direnak.



